

# Hiazinto Fernandorenaren hilberri txostena (1930-2017)

ETXEZARRETA, J. Iñaki  
Irakaslea

Jaxinto F. Setien, hezkuntza euskaldunaren ereile

*Atera zen behin ereilea hazia ereitera.*

*Ereitean, zenbait ale bide bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten.*

*Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian; eta axaleko lurra izanik, berehala erne zen, baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.*

*Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia.*

*Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten.*

Mateo 13, 3-8

Horixe bera izan zen Hiazinto Fernandorena Setienen jarduna, ereitea, ekinez eta eginez, sortzen eta eragiten. Euskaingintzan, oro har.

Hernani aldean egin zituen euskara teknikari, itzultzaile, artikulatu egile eta bestelako jardueren askotarikoaren protagonista izan aurretik, Hiazinto Jaxinto genuen.

Jaxinto F. Setien, hain zuzen ere. Hogeigarren mendearen seigarren hamarkadan Lazkaoko parrokiari apez zelarik, Gipuzkoako Goierrin giza sarea egin zuen 1930eko maiatzaren 30ean jaiotako Jaxinto euskaltzale gazteak. Bailara hori bere gotorleku izanez, euskal bazter ugaritara heldu zen Urnietako Aranzibia baserrian sorleku zuen Jaxinto Fernandez Setien. Euskal Herritik kanpo ere ibili zen. Bidaiekin artean bat seinalatu behar bada, eskola katalan hasiberriak eta haien sostengu ziren planteamendu pedagogikoak ezagutzeko parada izan zuen hura azpimarratu daiteke.

Hogeigarren mendearen erdialdean guraso gutxi batzuek, Elbira Zipitriaren lankidetzari baliatuta, hezkuntza euskaldunaren lehen haziak erein eta horietatik lehen landareak ernaldu zirenean, belaunaldi euskaltzale eta ekintzaile berriak garai hartako zirkunstantziak moldatu zituen, eta egungo hezkuntza euskaldunaren oinarri eta ardatz dugun ikastola eta ikastola mugimendua abiatu eta gorpuztu zen. Belaunaldi hartako lankide izan zen Jaxinto, jardunean ereile, eragile, zirikatzailerik eta ekintzaile.

### Hezkuntza euskalduna sortzeko testuingurua

Data batzuk ezartzekotan, 1954a eta 1956a adierazgarriak dira. Baionan Eusko Ikaskuntzak 1936-37 gerraosteko lehen biltzarra (1954) egin zuen. Parisen, berriz, Erbesteko Eusko Jaurlaritzaren eraginez, Lehen Euskal Mundu Biltzarra, Agirre Lehendakaria buru zela, laurehun lagun bilduta egin zen 1956an. Urte horretan bertan, Arantzazuko frantziskotarrek *Jakin* aldizkaria martxan jarri zuten. Eta berrogeiko hamarkadan Elbira Zipitriaren lehen etxe-ikastolaren ostean, berrogeita hamarreko hamarkadan beste hainbat andereñoren (Itziar Arzelus, Faustina Carril, Karmele Esnal, Mari Karmen Mitxelena, Mari Karmen Lasarte, Kontxita Beitia, Jone Forkada ...) etxe-ikastolak hasiak ziren.

Abertzaleen guneak ziren urte haietako motorrak. Parisen egindako Lehen Euskal Mundu Biltzar hartan, esaterako, ikastolak sortzea aldarrikatzen zuen proposamena egin zen eta ponentzia hark abertzale askorengana eragin nabaria izan zuen. Ez zen kasualitatea izan lehen ikastolak Donostian, Hernanin, Bilbon, Iruñean, Elgoibarren... sortzea, hots, abertzaleen guneak gutxieneko indarra zuten udalerrietan.

Paulo Agirre Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko idazkari nagusi ohiak dioenez:

“Bai, zalantzarik gabe, abertzaleetasunaren altzoan sortu ziren ikastolak. Abertzaleetasun tradizionalak eragin handia izan zuen. Nik ezaguturiko aurren-aurreneko ikastoletako arduradunak EAJ kideak ziren, nahiz eta, ordurako, haien artean diferentziak edo ikuspegi kontrajarriak zituzten: batzuk ortodoxoagoak ziren, beste batzuk gerraren ondoren erbestean ibilitakoak...”.

Abertzaleen guneok, beraz, ez ziren homogeneousak, batetik, eta orduko euskal gizartean gertatzen ari ziren beste fenomeno berri batzuekin bizi ziren, horiekiko joan-etorrian. Izan ere, ekonomian, industrian, gizarte-egituretan eta kulturaren bestelako moldeak nahi zituen belaunaldi berria bizitza eta bizimodua desberdin ikusten hasi zen. Identitatea eta baloreak egokitu nahi ziren: langile identitatea, nortasun abertzalea, izaera ekintzailea, konpromisoa, herritar izaera, berrikuntza, aldaketa edota iraultza... belaunaldi berriaren kezka eta langai bihurtu ziren euskal hiri eta herrietan. Fabrikak eta bestelako lantegiak eta Elizaren biltokiak hartu zituzten elkartzeko gune bezala, erakunde berrien sorleku eta gizarte-eraldaketa abiatzeko tokiak. Grebak, protestak, komunikatuak... hasi eta ugaltu egin ziren, hiri eta herrietako kaleak irabazi nahian.

Eliza katolikoaren baitan ere aldaketak gertatu ziren. Vatikanoko Bigarren Kontzilioak (1962-65) eta Joan XXIII.a aita sainduaren *Pacem in Terris* entziklikak (1963), adibidez, euskal apaizek eta fraideek euskararekiko zuten aldeko jarrera indarberritu egin zuen. Horren aterpean irratiak eta aldizkariak sortu ziren eta Elizaren liturgian euskara ofizial bihurtu zen.

Abertzaleetasunaren oinarri funtsekoetako bat zen baserri kulturak sekulako inpaktua jaso zuen urte haietan. Industrializazioak ekarritako ondorio nagusietako bat izan zen. Nekazari giroko bailara ugari hiriko/kaleko girora pasatu ziren. Demografikoki eta kulturalki aldatuta suertatu ziren hiriak eta industria-herri handiak, etorkin erdaldunen uholde izugarriaren ondorioz. Abertzaleen guneetan larrialdia areagotu egin zen: euskarak bizi zuen debekua nahikoa ez, eta etorkinen etorrera handiak euskararen atzerakada areagotu zuen.

Seguru asko, abian zen kontzientzia-hartzean euskararekiko ikuspegi horrek guztiak eragin zuen eta identitate abertzalea euskarari atxikia egotearen garrantzia bizkortu ere: hizkuntzak euskal nortasunaren baitan jokatu beharreko papera aldatu zen, hizkuntza bihurtuz euskal nazioaren ardatz edo zutabe.

Hala, prozesua geldiezin zen ordurako. 50eko hamarkadan emandako kontzientzia-hartzeak, halabeharrez, 60ko hamarkadan jauzi berriak ematea eragin zuen, eta euskararen eta euskal nortasunaren aldeko bide berriak zabaltzea: musi-

kagintzan, literaturan, bertsoaritzan, kazetaritzan... eta hezkuntzan! Ikastolak izan baitziren bide berri horietako bat.

Jaxintok apaiztegia (Salamanca, Saturraranen, Donostian... ) egin zituen urteetan zehar bizi ahal izan zuen, bere herrikide askok bezala, batzuk apaizgai, beste batzuk baserriar eta fabrikako langile, orduko Elizan, euskal gizartean eta euskaltzaletasunean eragin zituzten faktore, aldagai eta bestelako zirkunstantzia eta baldintzak. Apaiztu eta Lazkaoko parrokiara heldu zenean, Jaxinto gazteak horrelako bizipenak bere motxilan zekartzan. Hurrengo urteetan zehar ikastoletan egin zuen ibilbidean, motxila horrek sekulako eragina izan zuen, eta ikastola mugimenduaren martxa gorabeheratsuak Jaxintoren ibilbidea markatu zuen, horrelako obretan aritzen diren bidegile oro bezala.

### **Jaxinto eta hasierako ikastola mugimenduaren sare soziala**

Ikastola pertsonen obra da, obra herritarra, autogestioa eta lankidetzeta ditu ezaugarri, bereizgarri. Ez da, ez erakundeena, ez Administrazio publikoena, ezta Elizarena ere. Eraldaketa soziala, amets euskalduna, egin nahi eta bere buruaren jabe jokatu zuten pertsonen ekimena, subjektu aktiboek ekingiza kooperatiboak eta hezkuntza-erakundeak berritzaileak, inobatzaileak: hori baino ez dugu ikastola.

Alegia, gorago seinalatu den moduan, ikastolarena hogeigarren mendearen erdialdean bere buruaren jabe izan nahi duen belaunaldi gazte berriaren mugimendua da, hezkuntza euskalduna asmatu eta garatu zuen belaunaldiaren jarduna eta ekoizpena.

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran abiatu zen, abertzale eta euskaltzale gogotsuenen gizarte-ekimenez, ikasle ziren haurren gurasoen esku hartze aktiboaz, irakasleen inplikazio militanteaz eta inguruneko herritarrek lagunduta.

Ez zen baserri giroan sortu, giro urbanoan, kalean, baizik, herritarren gizarte-eskola bezala. Martxan jarri zutenean, guraso, irakasle eta herritar laguntzaileek motibazio euskalduna baliatu zuten, euskarak bizi zuen jazarpenari eta galbideari erantzuteko eta eskola erdaldunak egindako kaltetik ikasitakoak baliatzeko: euskaraz hezten duen eskola, ikastola, jazarpenari eta galbideari erantzuteko modurik onena zela uste zuten.

Baina, belaunaldi berri horrek beste motibazio bat ere bazuen ikastola martxan jartzean, beste amets bat: eurek izan ez zuten aukera, eskola erdaldunean jasan

zuten irakaskuntza gogor haren alternatiba euren seme-alabei, belaunaldi gazte berriak izango zirenei, ematea. Berrikuntza zuten helburu, orduko gizarte-ekintza askotan belaunaldi horrek nahi zuen bezalaxe. Estatuaren eskola publikoen eta Elizaren ikastetxe erlijiosoen parean Herritarren ikastola nahi zen: euskalduna eta modernoa.

Hori, ikastola, ordea, egin gabea zen. Inork ez zekien zer-nolakoa zen. Alabaina, zerotik eraikiko zutela argi zeukaten. Horixe bera gertatzen baitzitzaien orduko herritar kementsu eta ekintzaileei, lantokian edota gizartean: ez zeuden egoeraz konforme, egoera irauli egin nahi zuten eta errealtate berria eraiki. Eraldaketa soziala lortzeko ahaleginean zebiltzan.

Laurogeiko eta laurogeita hamarreko urteetan Bizkaiko Ikastolen Elkartearen lehendakaria Sabin Ipiña izan zen ikastolen sorrera bultzatu zuten hamaika guraso haietako bat. Ezker Ibar-aldearen Portugalete udalerriko Elai Alai Ikastola (egungo Asti Leku ikastola dena) 1963an sortzen ibili zen, herriko beste lau gurasorekin batera. Hark zioenez, “Gurasoen ekimenari jarraiki sortu ziren ikastolak. Guraso askoren gogoaz zelako gure seme-alabak hezteko giro euskaldun batean”. Baina gogoia bakarrik ez. “Indarrean zegoen hezkuntza sistemaren ondorioz ezin izan genuen mantendu gure hizkuntza. Euskal nortasuna berreskuratu nahi genuen, eta orduko eskolekin ezinezkoa zen hori”.

Jaxinto F. Setienek ere, orduko sortzaile haietako askoren pareko rola jokatu zuen urte haietan. Etsipenetik at bizi zen subjektu aktiboa izan genuen Jaxinto. Bere garaiko ameslaria. Bestelako Euskal Herria eta Mundua deseatzten zituena: euskalduna eta berdinkidea. Hori lortzea norberaren esku, pertsonaren eta elkarlanaren baitan, dagoela sinesten zuen. Gizarte ekintzaren apostolua.

Jaxinto oso ordenatua eta planifikazio zalea izan arren, ikastolen sorreran ari ziren beste lankide askori gertatu zitzaiena suertatu zitzaion: ez zegoen aurrez prestatutako plangintza edo diseinu bat, ibilian ibiliz egin beharreko bidea zen, hautu pertsonal eta kolektibo baten ondorioa; euskaraz eta modu ezberdin batean hezteko nahiari erantzuten zion gurasoen, irakasleen eta herritar kolaboratzaileen hautu pertsonala.

Aldi berean, berriz, han eta hemen, hartaz eta honetaz, ari zen belaunaldi berri hark sarea egin zuen. Gizarte-sarea. Horregatik, ez litzateke zuzena izango ikastolak era isolatuan sortu eta garatu zirela esatea. Ezta gutxiago ere. Fenomeno soziala

izanez, garaiko testuinguruan zeuden eragile ugari zerikusia izan zuten ikastolen eraikuntzan eta bilakaeran.

Jaxinto, esaterako, eragilea zen, eta beste eragile batzuekin sare sozial hori ehuntzen jardun zuen. Ikastolak sortzen laguntzeko, Jaxintok sare hori maiz baliatu zuen, eta ez zegoenean sortu. Hartara, Ikastolak martxan jarri zituen belaunaldiak eragile askoren laguntza eta babesia izan zuen, belaunaldi horrek berak bestelako eginkizunetan parte hartu zuelako hogeigarren mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan zehar.

Sare sozial horiek zer ziren irudikatzeko, esan daiteke gaur egun kultur jardun gisa ezagutzen direnak zirela, baina orduan, batik bat, jendearentzako topaguneak izan ziren, diktaduraren giro itogarritik ihes egiteko elkarguneak: dantza taldeak, musika taldeak, euskara irakasten zuten taldeak, elizaren inguruko kristau taldeak, mendi taldeak... Egoste kolektibo bat zegoen Euskal Herrian, kontzientziatze kolektibo bat. Eta horri esker, une batean, kontzientziaziotik beste salto bat eman zen: hezkuntza baliatzen hasi zen euskararen berreskurapenerako eta eskola ezberdin bat egiteko.

Jaxinto F. Setien apaizak, bestalde, elizgizonek zuten harrera eta mugitzeko “askatasuna” ondo baino hobeto baliatu zituen. Horrela, Goierrin bertan eta Goierritik kanpo beste taldeetan eta arloetan zituen eta eragin zituen harremanak baliatu zituen hezkuntza euskaldunaren proiektu berri hura zabaltzeko eta indartzeko. Hura guztia hautu pertsonalak erakarririkoa izanda ere, Jaxintok eta Jaxinto bezalako ikastola bidegile askok sortutakoa zen. Hor ahoz ahokoak garrantzia handia hartu zuen: ikastola nola lagundu jakiteko, beste ikastolaren esperientzia gertutik ezagutzeko... Ikastolak azpisare horren baitan eraikiz joan ziren, erabaki pertsonala izatetik herritar mugimendu bihurtzeraino.

Bazterrean utzi behar ez den faktore bat ere kontuan izan behar da: dirua. Hautu pertsonala eta sare sozialak gogoarekin, konpromisoarekin eta ausardiarekin lotuta badaude ere, belaunaldi berri horren ezaugarrietako bat, iraganean Euskal Herrian gertatu ez dena, zera izan zen: herritarren gaitasun ekonomikoa handitzea eta biztanleen gehiengora heltzea. Lehen ikastolak sortu ziren udalerrietan, azken urte horietako industrializazioaren ondorioz, langileen arazo ekonomiko nagusia ez zen irautea, estreinakoz soberakin ekonomikoak baitzituzten. Eta diru horrekin herriko jardun eta ekimen ezberdinak finantzatzen ziren: kirol taldeak, elkarte

gastronomikoak eta, noski, ikastolak. Herritarren diru laguntza ezinbestekoa izan zen ikastolak martxan jartzeko: zozketak, bonuak, lan sarien zati bat ikastolari bideratzea ...

Orduko Goierrri osoa zen deskribaturiko panorama berri horren adibide nabaria eta Jaxintok hor aldeko zirkunstantzia horiek izan zituen, bai fabriketako langileen artean, bai goiko buruen artean, bai merkatarien artean, bai bulego eta bestelako enplegatuen artean.

### **Jaxintoren obrak**

Mila bederatziehun eta hirurogeiko hamarkada osoan zehar Jaxintok lehen ikastolak sortzen ziharduten herritarrei animoak ez ezik laguntza praktikoa ere bideratu zien. Ondo asko zekien saiatzeak beti fruitua zekarrela eta horretan aritzen, etengabe eta etsi gabe. Bereziki trebea izan zen ikastolen aldeko giroa eta sostengua eragingo zituzten gazteak erakartzen eta lanean jartzen, balizko irakasleak bilatzen, konfiantza eragiten eta horien prestakuntza errazten.

#### *Andereñoen Erresidentzia*

Joxemi Zumalabe eta Carlos Santamaria ikastola bidegileekin batera, 1964an Andereñoen Erresidentzia (Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskola zen haren izen zehatza) sortzen ibili zen Jaxinto. Obra estrategikoetako bat izan zen garai haierarako, hasierako andereñoek ez baitzeukaten irakasle titulurik, ez prestakuntza pedagogikorik, ez kultura euskaldunaren gaineko formaziorik, ezta heziketan esperientziarik ere. Andereño haiek bi ezaugarri besterik ez zituzten: euskaldunak ziren, eta borondatetsuak.

Hezkuntza euskalduna eta modernoa bermatzeko, ikastoletako andereñoek behar zuten formazio propio eta berezitua, eta Andereñoen Erresidentzia gisa ezagunagoa izan zen ekimenak egoitza eta formazio osagarria eman zizkien andereñogai berriei, ikastoletan praktika saioak egiten zituzten bitartean.

Etorkizuneko andereñoek, metodologikoki, Elbira Zipitriaren eredia ikasten zuten Elbira Zipitriarekin berarekin aritutako andereñoen eskutik. Eta edukien aldetik, lau ziren atalak: euskara eta literatura; herriaren ezagutza (historia, geografia, antropologia...); haurra eta bere ingurua (pedagogia eta metodologia); eta eskolari buruzko ezagupenak.

Ikastoletako irakasleen formakuntzan, lehen urratsa izan zen Andereñoen Erresidentzia. Kualitatiboki zein kuantitatiboki, urrats garrantzitsua, hamar urte iraun

baitzuen ekimenak, mila bederatziehun eta hirurogeita lautik mila bederatziehun eta hirurogeita hamalaura. Eta bederatzia andereñoekin abiatu bazen ere, azken ikasturtean berrogeita bost andereñoigai izan ziren. Erresidentziak Jaxintoren hurbileko Paki Arregi irakasle prestatua izan zuen zuzendari.

*Kataluniarekin harremana*

Urte horietan ere Jaxintok, 1966an, hain zuzen ere, Katalunian martxan ziren eskola katalan berritzaileen esperientzia ezagutu zuen. Han mila bederatziehun eta hirurogeita bosgarren urtean abiatutako Rosa Sensat Institutzioaren Marta Mata eta Antonia Cassals sortzaileekin aritu zen eta hezkuntza euskaldunarekiko harremanak hasi zituen, geroztik urte luzeetan zehar fruitu oparoak eman zituztenak.

Horrenbestez, Andereñoen Erresidentzia eta Rosa Sensat Institutzioa izan ziren hastapeneko ikastolen jardun pedagogikorako erreferentzia.

*Lehen Ikastolen Elkarte*

Ikastola mugimenduak, bestalde, ikastolen arteko harremanak indartu zituen eta gutxienez eraketa egonkor bat izatera heldu zen: Ikastola Batzordea. Lehenbizi, gutxi batzuk elkartzen ziren, horrelakoetan gertatu ohi denez. Antolaketa maila horretara heldu aurretik, ordea, gurasoen juntak deitzen ziren haiek Bidanian, Lazkaon, Urretxun eta Loiolan bilerak egiten zituzten. Urretxun, Aita Pasiotarrek zuten komentuan, batzarrak egonkortu ziren eta haietan Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ikastoletako ordezkariak esku hartzen zuten.

Ikastolen sorrera alde aurretik egindako plangintza edo diseinu baten ondorioz sortu ez zen bezala, ikastolen elkarteak ez zen erakundetutako jardueraren emaitza. Ikastolak han eta hemen zabaldu ahala, argi ikusi zuten sortzaileek elkarren berri izan behar zutela eta, horren ondorioz, berehala gauzatu zen ikastolen arteko koordinazioa. Beti bezala, beharrak eraginda. Horrelaxe sortu zen Ikastola Batzordea, ikastolen mugimenduaren lehen adierazle kolektibotzat har daitekeena. Lehen ikastola elkarteak, bestela esanda.

Paulo Agirre zen Ikastola Batzordean parte hartzen zuenetako bat, jada buru-belarri ari zelarik lanean ikastolen alde. “Segituan hasi nintzen Urretxuko bileretara joaten. Hernaniko Gurutzeagak ordaindu zuen nire lehen soldata; eta gero Beasaino Gastesik, CAFeko zuzendariordea zenak”.

Agirreraren hitzetan, “1967-68an, bi urte horietan, bakarrik Urretxun biltzen gi-



nen, eta herrialde guztietakoak. Baita Iparraldeko ordezkaria ere”. Hastapenetan, igandetan egiten ziren bilerak; gero, larunbat arratsaldetan. Baina asteburuak baliatuta beti. “Hasieran, 15-16 lagun bilerak izaten ziren. Guztiak ez ginen beti elkartzen, ikastoletako ordezkari askok, langileak izanik, ezin zutelako etorri. Gurasoak eta laguntzaileak ginen nagusiki. Gero, irakasle pare bat etortzen hasi zen, baina, bestela, oso tarteka etorri ziren irakasleak”. Poliki poliki, batzordea handituz joan zen, “buru batzuk irten arte: Jaxinto F. Setien eta Jesus Atxa”, nabarmendu du Paulo Agirrek. “Jesus Atxa Urretxuko bileretan ezagutu nuen nik. Han jada gizon apala zen, baina zuzenean bihurtu zen *alma materra*”.

Batzorde bat baino, koordinazio bilerak ziren Urretxuko haiek, Agirreraren arabera. “Bakoitzak bere kezka botatzen zituen, baina lan batzuk ere finkatu ziren: irakasle berriak atzematea, udalekuak antolatzea... Esperientzien trukaketa oso garrantzitsua zen. Denok elkar laguntzen genuen”.

1968an Espainiako estatuak ezarritako salbuespen egoerak bere batzarrak ezindu zituen arte, Urretxun biltzen zen lehen ikastolen elkarte hartan Jaxintok ere esku hartzen zuen, Jesus Atxarekin eta beste zenbait ikastola bidegile, kide eta ekintzaileekin batera. Horietako batek, Joseba Arrietak, horrelaxe zioen: “Urretxuko batzarretan ikastolen arazoez hitz egiten zen, 1966an edo egingo ziren batzarrok. Ezkutuko bilerak ziren, baina laster lagun asko batzen hasi ginen, 100 lagun arte egotera iritsi ginen eta ezinezkoa zen batzarrak oharkabean egitea. Horregatik guk Urretxura joateari utzi genion”. Hiru lagun baino gehiagoko bilerak debekatu zeuden.

### *Udalekuak*

Aisialdiak leku propioa izan zuen lehen ikastola haien jardunean. Jaxintok horretan ere esku hartu zuen. Ikasturtean zehar egindako hezkuntza-lanari jarraipena eman nahi zitzaion udan. Sasoi hartako aukerak (Aurrezki Kutxen esku zeudenak) erdaldunak zirenez, horiekiko alternatiba ziren udalekuak sortu zituzten ikastolek.

Lehen saio xumea Bizkaiko Arrazolako baserri batean egin zen, Xabier Peña euskaltzalearen bitartez, bederatzi ume eta bi andereño bilduta. Euskal udalekuak gorpuztu eta indartu, baina, Barrian egin ziren, hango monasterioan, mila bederatziehun eta hirurogeita bosgarren urtean.

Uda hartan, hiru asteko egonaldiaz gozatzeko aukera izan zuten haurrek, bi txandatan antolatuta. Berez, ikastoletako ikasleentzako udalekuak ziren, baina oraindik ikastolarik ez zuten herrietako haurrek ere hartu zituzten Barrian. Begiraleak, aldiz, boluntario aurkezturiko gazteak ziren: andereñoak, andereño gaiak eta beste hainbat gazte. Eta gabeziak, beste behin, ilusioarekin ordezkatu zituzten. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta Guraso Eguna ere antolatu zuten, Frantziako udalekuen ereduari jarraiki.

Urte urte azpiegitura hobetuz eta bitartekoak ugarituz joan ziren, eta Barria milaka euskal haurrentzako udalekuen ikur bilakatu zen. Nekane Auzmendi andereñoa izan zen Barriako euskal udalekuen bilakaera ezagutu zutenetako bat, 1965eko lehen saioan hasi eta, guztira, zortzi uda egin zituelako Barrian. “Uda haien inguruko oroitzapen onak ditut. Haurrek ongi erantzun zuten. Gurasoek ere, konfiantza izan zuten gudan. Guraso izanda edo izan gabe, (Ikastola) Batzordea osatu zuen jendeari esker ez ginen bakarrik sentitu; bisitan ere maiz etortzen ziren ondo moldatzen ari ote ginen ikustera, eta burua Barrian zuten”, Auzmendiren esanetan.

Antzera mintzo da Paulo Agirre. “Ikastola Batzordean ezagutu nuen gizon bat bileratara kamioi batekin eta beste emakume batekin joaten zena. Juanito Goia zen, Karlos Santamariarekin eta beste hainbatekin batera Santo Tomas Lizeoko sortzaileetako. Konstruktorea zen, eta Urretxun egiten genituen bilerak bukatuta, Barriara joaten zen bere laneko kamioiarekin, materialarekin, langile batekin... Maritxu Barriolarekin batera, euskal udalekuen sortzailea eta arima izan zen. Horrelako jendea zen. Haiak dena jartzen zuten ikastolen alde: haien lana, dirua, orduak... Eta horrelako jendea behar zen!”.

Urte horren ostean, ikastola bakoitzak, edo beste batzuekin lankidetzan, udalekuak han eta hemen antolatu zituen. Bizkaiko ikastolak, esaterako, mila bederatziehun eta hirurogeita zortzian antolatzen hasi ziren. Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak mila bederatziehun eta hirurogeita hamarrean hasi zen lurralde osoko ikastolentzako udalekuak antolatzen.

#### *Gordailu*

Jaxintok zuen abilezien artean ezer nabaritzekotan, etorkizunari aurre egiteko proposamenak ideiatzen zituen jendeari entzutea eta haiek bideratzea zen. Gordai-

luaren sorrera Jaxintoren ideia eta jarduera dugu. Ikastoletan bizi zen prestakuntza eta formazio ezari erantzun asmoz, 1968-69 ikasturtean Gordailu sortu zen, Jaxintoren eskua bistakoa zela.

Formazioa etengabekoa zela iritzi zion Gordailuk eta, horretarako, irakasleen parte-hartzea ezinbestekoa zela. Hau da, irakasleek beraiek landutako prestakuntza, haien beharrei erantzuteko.

Hala, hezkuntza-zerbitzuen ikastetxe baten antzera lan egin zuen Gordailuk, baita ikastoletako irakasleak formatzeko ikastetxe gisa ere. Eta lau bide nagusi jorratu zituen: ikastaroak antolatu zituen, irakasleek eguneroko jardunean aurkituriko hutsuneei erantzun asmoz; ikastoletan zegoen material faltari aurre egiteko denda bat zabaldu zuen Donostian (Haurride izenekoa), Bartzelonan eta Baionan erositako materiala salgai jarri; aldizkari bat kaleratu zuen, irakasleen arteko komunikazioa bultzatzeko; eta liburuak ere argitaratu zituen elkarteak, ikastoletan erabili ahal izateko.

Zabalpen arrakastatsua erdietsi zuen Gordailuk, euskal lurralde bakoitzean liberatuak izan baitzituen, eta garai hartako ikastoletako irakasleen artean bazkide asko. Horrela, bazkideen kuotak eta ekoizten eta saltzen zituen ikasmaterialetatik ekarritako irabaziak izan ziren Gordailuren finantzabidea.

Berriro ere Jaxintok, orduko ikastolazaleen artean Jaxinto F. Setien bezala gutiz ezagunak, bere aitzindaritzera erakutsi zuen. Hasierako ikastola haien pedagogia berritzaileari erreminta antolatua eskaintzen jakin zuen, irakasleek elkarri beren jardunaren berri eman diezaieten erakundea antolatu zuen, heziketa lanari lotutako formazioaren beharrianak identifikatzeko azterketa-gune profesionala sortu zuen eta ikasmaterialak ideiatzeko, ekoizteko eta zabaltzeko enpresak (editoriala eta denda) martxan jarri zituen.

Gordailuren eragina nabaria izan zen ikastolen hasierako ibilbide hartan: pedagogia eraldatzailearen norabide eta praktika nagusiak (Freire, Freinet, Makarenko, Montessori eta abar) ekarri zituen Haur Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntzaren hasierako ikas mailetara; literaturaren ipuin klasikoak itzuli, euskal literaturakoak egokitu eta originalak sortu egin zituen; ikasleek eta irakasleek beren eguneroko jardueretan euskaraz behar zituzten kontsulta-liburutxoak (*Ikastola Liburutegia* bildumakoak) sortu, ekoitzi eta argitaratu zituen; pedagogia berritzaileari zegozkien material manipulatioak ekarri zituen; eta horiek guztiak saltzeko eta finantzazio

iturria sendotzeko, *Haurride* denda zabaldu zuen.

Jaxintok bere inguruan zituen irakasle askori entzuna zion ikasmaterialak behar zirela, baita nolakoak izan beharko liratekeen ere. Horren segidan, Gordailu hainbat liburu sortzen eta argitaratzen hasi zen, irakasleek seinalatzen zizkioten premia zehatzei erantzuteko. Ideia haietako bat *Ikastola hiztegia* lana izan zen eta Gordailuk haren lehendabiziko argitalpena kaleratu zuen. Eta gero etorri zen *Ikastola Liburutegia* bilduma, lau sailetan antolaturikoa: *Natur Zientziak*, *Gizarte Zientziak*, *Geografia* eta *Historia*.

Bilduma hau osatzen zuten liburuxkak, hots, *Ikastola Liburutegia*, kontsultarako materialak ziren, ez testuliburuak. Izan ere, Gordailuren irizpide nagusia zen ikasleak ez zuela testu libururik behar, bere ikasliburua osatu behar zuela material eta iturri ezberdinetara joz. Jaxintok eta Jaxintok eragindako beste egile batzuek liburuxka horien sorkuntzan jardun zuten buru-belarri.

Esan daiteke, zalantzarik gabe, ikastola mugimenduaren ikasmaterialgintzaren lehen saio edo esperientzia sistematizatu Gordailurena izan zela. Baina, horretan ere, aurreratuegi jokatu zuen, ikastoletako irakasle gehienek formazioa horren goi mailara heldu gabe zegoelako. Eta, horren ondorioz, seguru asko, ikasmaterial horien ekoizpen kostuen eta salmentaren mozkinen arteko desoreka negatiboa handiegia suertatu zen.

Urretxun biltzen zen Ikastola Batzordearen beste sektore baten proposamenak ez zuen bat egiten Jaxintok planteatu zuen ikasmaterial motarekin. Pedagogikoki ikuspegi ahulagoa izan arren, talde horrek orduko argitaletxeek lantzen zuten eredu zuen erreferentzia: testuliburuak eta fitxak lehenetsi behar zirela uste zuten. Bide hau nagusitu zen hirurogeita hamarreko hamarkadan ikastola mugimendu antolatuan, Gipuzkoako Ikastolen Elkartean, hain zuzen ere.

Hala ere, Gordailuk bereari eutsi zion eta eginahal hartan Gordailuk beste ekarpen handia egin zuen: euskararen batasunerako Euskaltzaindiak orduko onetsiak zituen arauak erabiltzen eta artean erabakitzeke zeudenak saiatzeko, *Gordailu* aldizkaria eta ikasmaterialak, Jaxintoren eskutik, euskararen corpus handitzean eta batura ekartze-jardunean erreferentzia sendoa izan ziren ikastoletako irakasle askorentzat.

Baina, horren ideia ona izanik eta hasierako irakasle askoren (seguru asko, ez

gehiengoaren) aldekotasuna lorturik, Gordailu itzali egin zen, kandela bailitzan.

### **Jaxintotik Hiazintora**

Urte gogorrak mila bederatziehun eta hirurogeita hamarreko lerrokadakoak. Ilusio handikoak. Biziak eta, aldi berean, gatazkatsuak. Zirt edo zart egitekoak. Euskal gizartea Europa eraldatzen ari zen sasoi hartako berrikuntzan murgilduta zegoen eta ikastolak gizarte hartako euskaltzaleen norabide kontrajarrien isla ziren.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren industrializazioaren ondoriozko euskal gizarteak ordura arteko ezaugarriak erabat aldatu bazituen, hirurogeita hamarrekoak aurrekoarenak txiki utzi zituen. Ikastolen bilakaeran eragin zituztenen artean hiru faktore nagusitu ziren: ikastola ugaltzarekin batera ikasle kopurua handitzea; Espainiako estatuak mila bederatziehun eta hirurogeita hamargarren urtean onetsitako Hezkuntzaren Lege Orokorrek hezkuntza-sisteman ezartzen zuen eraldaketa; eta abertzaleen guneetan suertatu zen ideologia eta estrategia politikoen aniztasun kontrajarria. Horiek guztiak Jaxintok Gordailun eta Gordailuren bilakabidean bizi zituen.

Alde batetik, Jaxintoren eta bera bezalako ikastola bidegile guztien hautu pertsonal eta herritarraren arrakasta-adierazle ikastola kopurua eta ikasle kopurua handitzea baziren ere, ikastola erraldoiek eragin zezaketen norabide galtzearen beldur zen Jaxinto. Egindako lan guztia galduko zuen uholdea bailitzan bizi zuen. Lazkaon bertan beste eskola bat ireki eta bultzatzen saiatu zen, ikastolaren ibilbidearekin bat ez etorrita.

Beste alde batetik, Haur Hezkuntzatik gora zihoazen ikasleak, Lehen Hezkuntzara edo urte gutxiren buruan Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (1970eko legearen ondorioz), eta ikasle haien ikastolen eraikinak legeztatu behar izateak eztabaida zehatzak eragin zituen: legeztatu edo ez, diru laguntzak eskatu ala ez, Madrileko eskaerak bete ala ez... Jaxintok ez zuen bide argia ikusten, ikastolak tranpan eroriko zirela uste zuen.

Eta gorabehera ideologiko eta politikoei, finean, Gordailun guztiz goi mailakoak bihurtu zirelarik, Jaxinto samindu egin zuten. Urte horietan apaiz edo apaizgai ugari sekularizatu ziren eta hezkuntza munduan sartu. Ordura arte erro-

tutako irakasle=andereño irudia aldatu zen eta irakasle=apaiza agertu zen ikastoletan, formazio filosofiko eta ideologiko handikoa, marxismoan eta marxismoaren ildo anitzetan irakurria. Ikastoletan bezala Gordailun ere, irakasle=apaiza moldeak bere eragina izan zuen. Eztabaidan ikastolen jabetza, izaera pribatua edo burgesa, erlijioaren auzia... Ikastoletan irakasle kanporatzeak erabaki ziren. Gordailuko gidari batzuk “espainolistak” zirela zabaldu zen. Nahasketa itzela.

Hala ere, Gordailun izan ziren haserreak eta bestelakoak gainditu nahian, Jaxintok amesturiko ikastola eraldatzaile harekin konpromisoa egin zuenez, hautu horri mila bederatzehun eta hirurogeita hamarreko hamarkada osoan eutsi zion.

Bitartean, ikastola mugimenduak bestelako bidea hartu zuen. Lurreko federazioak sortu eta indartu ziren Ipar Euskal Herrian (Seaska, 1969) eta Hegoaldean (Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak). Federazioek ikastolen ordezkari naturalen izaera eta praktika bereganatu zuten, egunerokotasunak sorrarazten zituen arazoei aurre egiteko tresna gisa, eta ibilian ibiliz kudeaketarazko ekonomiko, juridiko eta orokorretik arduraren pedagogikoetara pasatu zen federazioen fokua.

Hamarkada horretan zehar, gainera, ikastoletako Irakasleen Elkarte berria martxan jarri zen 1976an, Gipuzkoan, Gordailun bizi zen girotik aparte eta azken urteetan zehar ikastoletara sartu zen irakasle berri multzoaren beharrezko artatzeko. Giroak eta planteamenduak ez zuten zerikusirik hirurogeigarren hamarkadakoekin.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan ere, agente berriak agertu ziren ikastolek eraikitako hezkuntza euskaldunaren eremuan: editorialak, dendak, zabalkuntza-entresak, formazio taldeak... Ikastolak zokotik plazara irtenda zeuden. Aldaketa politikoak aurreikusi ziren, hauteskundeak, hautetsiak... Euskal gizartea fase berrian aurkitzen zen eta erronkak berriro behar zituen.

Gordailu sortu zen hasierako eragin nabari hura emeki-emeki geldotzen joan zen eta haren lekua beste batzuek hartu zuten: Irakasle Elkarte berriak, euskal argitaletxe berriak eta bereziki euskal lurraldeetako Ikastolen Elkarteak. Jaxintok asmatu eta Gordailun garatu nahi izan zuen ideia eta hastapeneko proiektua modelatu ziren. Baina, ez zen hutsean gelditu. Berak sortzen lagundu zuen ikastola mugimenduak, hirurogeita hamarreko hamarkadan lurralde federazioetan antolatu eta indartu egin zen ikastola mugimenduak, ideia haiek bere egin zituen, errealitate egokitu eta garatu egin zituen segidan.

Ondo asko dakigu, jakin ere, Jaxintori mingarria egin zitzaioela urte haietako ibilera, horretaz hamaika solas luze egin baikenuen elkarrekin. Baina, hala ere, barru-barruan beti izan zuen kemena baliatuta, eta guztiaren gainera berrikuntzarako eta hutsuneak sumatzeko zuen gaitasun paregabeak bultzatuta, mila bederatziehun eta hirurogeita hamarreko hamarkada horren bukaera aldean Oihenart taldea martxan jarri zuen, Batxilergoko ikasleek eta irakasleek orduan zuten ikasmaterialgabeziari erantzuteko, bai Historia arloan, baita Geografian ere.

Aldi atsegina huraxe, bai Jaxintorentzat, baita Jaxintorekin batera aritu ginen irakasle gazte haietzat. Ramon Amundarain, Abel Ariznabarreta, Elias Artabe, Agustin Azkarate, Jose Ramon Arbe, Peña, Txomin Sukia... bizkaitar eta gipuzkoar irakasle euskaldunak ginen haiek biltzeko abilezia erakutsi zuen berriro ere, gu lanean jartzeko motibazioa piztu eta egitura erraztu zigun.

Nola euskal gaietan hala beste kulturetan bere erudizioa eta jakinduria bistakoak eta entzungarriak ziren. Eta ororen gainera, orduan zuen baliogatik, euskalkiei buruz zuen ezagutza zen miresgarria. Euskara landua zuen, bai ahoz, bai idatziz, eta hizkuntzaren erabileran trebetasun aparta erakutsi zigun. Behin Euskal Herriko historiari buruz guk gure originalak sortu eta gero, testuak euskaraz txukundu egiten zituen, aldaketak eta zuzenketak maisuki arrazoituz, eta horien edizio osoaz arduratu zen, produktuak inprimatu eta plazaratu arteko prozesu osoarekin batera.

Oihenart taldeko lanetan genbiltzala, UZEI hiztegien saltsa berrian zebilela, Joseba Intxaustiren eskutik eta zuzendaritzapean euskararen eta hezkuntza euskaldunaren jauzi kualitatiboa bihurtu zen terminologiaren garabidean. Orduan ere perrexila.

Hortik aurrera, ordurako nahikoa urrunduta bazegoen, gure Jaxintoren jarduna gero eta gehiago aldendu zen hezkuntza euskaldunaren muinetik eta euskalgintzaren beste eremu batzuek haren ekarpen eta jario emankorra baliatzeko zoria izan zuten.

Ordudanik hezkuntza euskaldunaren Jaxinto F. Setien ereileak Hiazinto Fernandorena Setien euskal emaleari bidea eman zion.

2017ko urtarrilaren 7an hil zitzaigun Hiazinto eta 9ko hileta elizkizunetan Fermin Argiñarena herrikide eta lagunak ondoko bertso ezin egokiagoak eskaini zituzkion:

Errautsetatik sortua  
eta errauts bihurtua.  
Iritsi zaizu ordua.  
Ikastolaren lemazain zintzo  
ta ez beti onartua.  
Urnietarrok ez gera damu  
Jaxinto ezagutua (bis).

Jakinduriz abilena,  
giza legez zebilena,  
babesten zun debilena.  
Ta herrigintzan, hor daude obrak,  
militante langilena.  
Malkoa nola irri bihurtu  
lanean ibili zena (bis).

## BIBLIOGRAFIA

### Liburuak

Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, 1994, *Gipuzkoako Ikastolen Elkartea: 25 urte*, Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, Donostia.

Agirre, Gorane, 2003, *BIE 25 urte*, Bizkaiko Ikastolen Elkartea, Bilbo.

Euskal Herriko Ikastolak - Euskaltzaindia, 2010, *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredu 1960-2010*, Jagon Sailsa, Euskaltzaindia.

### Aldizkariak, artikuluak eta txostenak

Delgado, Ander 2016, "Gordailu y la renovación pedagógica en el País Vasco. Política y educación en el tardofranquismo", *Aula*, 22.